



Kantu eta trikitilari txapelketak

Lierni Arozena lasarteoriatarrak eta Goiatz Irazabal aňorgatarrak Gipuzkoako Kantu txapelketako finalean kantatuko dute igandean Donostiako Antzoki Zaharrean, eta beraiekin egon gara txapelketari buruz gehiago jakiteko. Bestalde, Amalur eskolako Paul Eizmendi eta Eider Manso Euskal herriko trikitilari gazteen txapelketako finalean izango dira, hauek ere igandean. /4 orrialdea

Indarkeriari aurre egiteko hezkuntza

Gaur, genero indarkeriaren aurkako egunean, hainbat ekintza antolatu dituzte

Azaroaren 25a da gaur, genero indarkeriaren aurkako eguna. Herrietarrak gai honetan sentsibilizatu eta hezteko hainbat ekintza egin dira astean zehar herriko Emakumeen Zentro Zibikoan.

Sentsibilizazioa lantzen

Asteartean, Iciar Bollain zuzendariaren "Amores que matan" film laburra ikusi zuten.

Ostean, Mercedes Humada psikologoa indarkeriaren zikloak aztertu zituen, lehenengo irainak, indarkeria fisikoa, erasotzailearen damua edo biktimaren eruduntasuna eta barkamena.

Datuak eskaini eta, besteak beste, lehenengo indarkeri egoeratik denuntzia egitera normalean hamar urte igarotzen direla azpimarratu zuten.



Aingeru Mayor sexologoak emakumearen sexualitateari buruz mintzo zen.

Honen ostean, emakumeak babesteko estrategiei buruz aritu zen. Bere mintzaldian zehar, emakumeen galderei erantzun zituen.

Asteazkenean, Pedro Almodovarren "La mala educación" filma ikusi eta Ainge-

ru Mayor sexologoaren hitzaldia izan zuten.

Honek pertsonak ditugun harremanak azaldu zituen sexualitatearen puntutik eta, esate baterako, gaur egungo gizarteak emakumeengan duen eragina aztertu zuen.

Gaurko ekintzak

Bestalde gaur, Emakumeen Zentro Zibikoako antzerki taldeak "Patio de vecinas" lana eskainiko dute Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan, 19:30etatik aurrera.

Eta zentro zibikoak antolatutuen ekitaldiei amaiera emateko, 21:30ak aldera, afora egongo da Araeta jate txean.

Konzentrazioa

Baina ez da Zentro zibikoak bakarrik egingo gaitzeko ekintzak egingo dituen.

A25 ekimenak gaur, 20:30tan Udaletxe aurrean egingo du konzentrazioa.

Emakumeen indarkeriaren aurkako jarrera edo oposizioa erakusteko eta harreman parekideak bultzatuko dituen jendarte baten alde egiteko deialdia luzatu du A25 izeneko ekimenak. •

Musikari gorazarre

Asteartean Santa Zezilia eguna izan zen, musikari zaindaria eta ekintza batzuk antolatu ziren musikari eguna ospatzeko.

Asteartean, Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak antolatuta Txorimaloak soinu taldearen kontzertua izan zen Manuel Lekuona kultur-etxeko aretoan. Euskal Herriko doinuak eta tresnak, zein atzerriko instrumentu batzuk, hala nola, kanabera, karrañola eta boroak entzun zituzten emanaldira hurbildu zirenek.

Egunean, berriaz, eguraldiari aurre eginez Amalur eskolako txistulariek herriko kaleak alaitu zituzten. •



Txorimalo soinu taldeko gaztekoen eskutik, astearteko emanaldian ahots, dantza eta sorkuntzako doinuak izan ziren.

GIZARTEA /3

Abenduaren 2an Euskararen Eguna ospatuko du Udalak lehen aldiz

POLITIKA /6

Azaroaren 20ko hauteskundeetako herriko emaitzak auzoz auzo

GIZARTEA /6

"ETA No/ETA Ez" pankarta kendu dute Udaletxeko balkoitik



debelaiz talleres
Debelaiz

Herritarrentzako konfiantzazko tailerra zerbitzurik onenarekin

Mekanika, Txapa, Pintura

AUTOENTZAKO ZERBITZU INTEGRALA



Oria etorbidea 4, 3. lokala • Lasarte-Oria
Tel.: 943 366671 • www.debelaiz.com



• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak



ELEKTRIZITATEA ARREGUI

• Material elektrikoak
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Neure kabuz



Hegan egin

Bere ametsa hegan egitea da. Txoriak, tximeletak, lainoak, hegazkinak..., airean dagoen edozein gauza du gustuko. Etxean denbora asko ematen du lurrean etzanda, buruz gora, sabaiari begira.

Handitan pilotu izan nahi duela dio, zerutik munduari so egiteko, zeruz zeru ibiltzeko.

Bitartean balleta egitea erabaki du. Probatu nahi du noraino irits daitekeen jira eta buelta eginez, salto eginez; ea balletaren arintasunak zerutik gertuago egoten laguntzen dion.

Kultur etxean izena eman du klaseetara joateko. Ume pila bat dago balletean. Denera 50 bat ume dabilta Iñaki Landa irakaslearekin. Eta kursoa hasteko umea iritsi da. Dantza aretoa kultur etxeko azken solairuan dago. Iggogailutik atera eta aldagelara irteteko bidea jendez gainetza ageri da. Aldagelara ezin kabitut. Haur eta amen egonezina somatzen da.

Azkenik pilotua izan nahi duen mutikoa prest dago. Gelan sartzerá doa laino arrosa batez inguratuta. "Mutil bakarra dago, ez dakit zergatik ez diren gehiago animatzen" –esan dit matrikulak egiteaz arduratzen den neskak. Erantzutera noala, Cristiano Ronaldoren irudia etorri zait burura: izugarritzko saltoa eginez defentsaren gainetik buruz eman dio baloiari eta izugarritzko gola sartu du. "Beno, ereduak kontua izan daiteke" –erantzun dut neke puntu batekin–.

Jone M. Hernandez

Zorion-agurrak



Leire

Zorionak ximpatika, txokolatzeko hiru muxu potolo Maialen eta familia guztiaren partetik!



Haritza

Zorionak txingurri. Muxu handi, handi bat Eneritz, ama eta aitaren partetik



Bixente

Zorionak Bixente eta ongi pasa zure 81. urtemugan. Zure familia osoaren partetik!!



Ibai eta Urko

Zorionak, ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partetik.



Unai

Zorionak etxeko futbolistari. 8 muxu potolo familiaren partetik.



Javier

Zorionak xalxerito! Muxu handi bat familiaren partetik.



Hodei eta June

Zorionak bikote zuen laugarren urtebetetzean!!! Muxu handi bat gurasoen partetik.



Ainara, Beñat eta Manex

Zorionak hirukote! 9 muxu potolo zuen familien partetik.



Nika

Zorionak munduko amona hoberenari. Muxu pilo bat. Zure bilobak.



Irati

Zorionak etxeko erreginari!!! 6 muxu potolo!!! Etxeko printzesa, aitaixo eta amatxoren partetik.

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Pisua alokatzen da Kale Nagusian. 61 6494429
- Pisua alokatzen da Aralar plazako 6. zenbakian. Harremanetarako 665 748 722.

Salerosketak

- Opel Corsa 1.4 Twinport Eco-tec 66kw/90cv salgai. Harremanetarako telefonoa 678 332 646 edo ibaigolet@gmail.com.

Lan-eskaizta

- Etxeko lanetarako eta umeak zaintzeko emakume bat behar da. Goizez bakarrik. Harreman-telefonoa: 943 364 618.

- Biyak Bat erretiratuak elkarrekin joste-lanak egiten dituen begiralea behar du. Interesatuak elkarrekin bulegora hurbildu behar dira, astelehenerik ostiralera, 10:30etik 12:30era.

Lan-eskariak

- Erizaintza eta geriatrian trebatutako gazte arduratsuak zaurerak zaintzen lana egingo luke. 679 526 305
- Matematika klase partikularrak ematen ditut, maila guztieta, esperientzia handia. 646717676.

Bestelakoak

- Arratoi mestizo urte eta erdiko zakurra oparitzen da. Oso leiala. 666 454 930

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Manuel Pagola Azpiroz, azaroaren 23an, 84 urte zituela
- Jesus Artola Esnaola, azaroaren 22an, 71 urte zituela.
- Carmen Rodriguez Gomez, azaroaren 21ean
- Antonio Gomez Muiña, azaroaren 18an, 95 urte zituela

Jaiotzak

- Eneko Miranda Gozalo, azaroaren 16an

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112

Udala

- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
- Kiroldedia ... 943 376182
- Kulturetxea ... 943 376181
- Gizarte Zerbitzua ... 943 376179
- KIUB ... 943 361605
- Udal euskaltegia ... 943 361621
- Muntteri AEK ... 943 372863

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 25**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Larunbata, 26**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Igandea, 27**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 28

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astearte, 29

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 30

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 1

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Mintzodromoan kantatuko dituzten euskal abestiak prestatu zituzten "Mundialak Gara" eta "Xumela" k igandean abenduaren 20an.

Euskararen Eguna lehen aldiz ospatuko da Lasarte-Orian

- Udalak bultzatu du Ttakunekin eta euskaltegiekin batera
- Mintzodromoa egingo da Okendoko karpan abenduak 2an

Abenduaren 3an urtero bezala Euskararen Eguna ospatuko da nazioartean eta aurten oihartzun berezia izango du Lasarte-Orian ere, Udalak lehen aldiz parte hartzea eta bultzatzea erabaki baitu. Abenduaren 2an, ostiralean, arratsaldeko 18:00tik 21:00ra Okendon burutuko den Mintzodromoa izango da ekitaldi nagusia. Karpa erraldoi bat jarriko da, eta euskaraz egiteko ohitura dutenak eta horren bila dabiltzanak hiru gairen inguruan mintzatzeko dira lau laguneko mahaietan banatuta, ordu laurdenero solaskidez eta gaiz aldatuz.

Jon ALTUNA IZA

Solaskide programari esker herriko euskaldun zahar eta berriak elkartu eta euskaraz mintzatzeko dira astero. Azken urteotan gero eta partaide gehiago dira bi aldeetan, eta datorren ostiralean eurak izango dira Okendon egingo den Mintzodromoaren oinarria.

Azken finean horixe da mintzodromoa, euskaraz egiteko gaitasuna eta ohitura dutenak eta horien ari direnak mahai batean eseri eta gai baten inguruan hizketan jartzea.

Ttakun Kultur Elkartearekin eta euskaltegiekin batera antolatatu du Lasarte-Oriako Udalak abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, Mintzodromoa: Okendo plazako karpan lau laguneko mahaiak jarriko dira eta ordu beteko bi txandatan hiru gai ezberdinez arituko dira, ordu laurdenero mahaiz aldatuko baitira, eta beraz, solaskidez eta gaiz ere bai. Gainera, "Mundialak Gara" kantu

taldeko eta "Xumela" abesbatzako partaideek hainbat euskal abesti eskainiko dituzte ekitaldiari hasiera eta amaiera emateko eta tartean Mailu Arrutiren "Intxaurretik Mingainera" bakarrizketa ikusteko aukera ere izango da.

Euskal kantuak

"Mundialak gara" taldean etorkinak dihardute euskal abestiak ikasi eta kantatzen, asko Aisa ikastaroen bidez

euskara ikasten ari diren etorkinek, eta ostiralean Xumela abesbatzarekin batera kantatuko dute. Aurreko igandean Landaberrin elkartu ziren emanaldia prestatzeko.

Bi txanda, egingo dira gainera, lehenengoa 18:15etan eta 19:30etan bigarrena.

Mintzodromo eta Solaskide programaren helburua, euskara ikasten ari direnei eta hitz egiteko ohiturarik ez dutenei euskaraz aritzeko aukera eskaintzea da, ahal bada gustuko dituzten toki eta jardueretan.

Herritar ezagunak

Abenduaren 2ko Mintzodromora hainbat herritar ezagun gonbidatu dituzte, eta hor izango dira besteak beste, David Martin eta Mikel Unanue kirolariak, Nora Izagirre arropa diseinugilea, Ane Labaka, Unai Muñoz eta Andoni Otamendi bertolariak, Joxe Kruz Labaka zalea, Pablo Barrio alkatea eta zinegotziak, Maider Segurola kazetaria edota Xabier Andonegi apaiza.

Gonbidapena luzatu zaie herritar guztiei, euskaraz aritzeko ohitura dutenei eta horren bila dabiltzanei, bertan parte har dezaten. Egin beharrekoak simplea bezain erraza da: mahaiaren inguruan Horretarako, egunean bertan Okendora bertaratzea besterik ez dute egin behar edota nahigo izanez gero alde aurretik izena ematea, Ttakun Kultur Elkartera (943371448) edo Udaleko euskara zerbitzura (943376184).

KULTURA

Jalgune-ren jaialdiko gonbidapenak

Jalgune elkartearen jaialdi koloretsua egingo da bihar, hilaren 26a larunbata, 18:30etik aurrera Manuel Lekuona kultur-etxean. Emanaldia ikusi nahi duen orok gonbidapena izan behar du. Lasarte-Oriako Kultura sailak jakin arazi duenez, gonbidapen hauek Manuel Lekuonako sarreran daude. Hala baina, atzo 50 gonbidapen jarri zituen sailak, www.lasarteoriasarean.eu web orrialdean eta honen bidez ere eskuratu ahal izango dira.

Erabiltzaileek lau gonbidapen gehienez eskatu ahalko ditu. eta etxean inprimatu behar dira. Etxean eskaera egin ezinez gero, Manuel Lekuonako hirugarren solairuan dagoen kiosko digitalean egin daiteke. •

BERTSOLARITZA

Ane Labaka Bertxoko sariketako finalean

Arabako Bertsolari elkarteak eta Hala Bedi Irratiak antolatzen duten Bertxoko sariketaren finala izango da gaur, ostirala, 22:30ak aldera, Aramaioko Iturrieta sagardotegian.

Bertan, Ane Labaka herritarrek Gasteizko Ekaitz Samaniego eta Ander Solozabal, Arrigorriagako Peio Ormazabal, Audioko Izar Mendiguren eta Urretxuko Manex Mantxola izango ditu lehiakide. Gai-jartzaile lanetan Iñaki Agirre eta Manex Viñaspre arituko dira. •

ERRAUSTEGIA

Erraustegiaren Aurkako Eguna bihar ospatuko da Usurbilen

Bihar, azaroak 26 larunbata, Erraustegiaren Aurkako Eguna ospatuko da Usurbilen. Itaya taldeak antolatutako ekimenak Lasarte-Oriako gazteen babesa du. Hauek azaldu dutenez, "Foru Aldundi berriak erraustegiaren aldeko jarrerarik ez duen arren, oraindik ez dago argi zer gertatuko den proiektu honekin".

Horregatik, "ezinbestekoa da herritarrek kontzientziatzen eta mobilizatzen jarraitzea. Argi geratu dadin herritarrok ez dugula nahi gure lurraldea ekologikoki eta ekonomikoki hipotekatuko duen munstrorik; gure osasuna kaltetuko duena gainera" azpimarratzen dute.

Horretarako aukera ezin hobea da gazteen ustez biharko, "goizean burutuko den mendi martxarekin hasi eta gaueko kontzertuekin amaituz". Izan ere, goizeko 10:45etan, errauste plantako obretara ibilaldia egingo dute Hipodromoko zubitik hasita. Bertan bazkalduko da eta, antolatzaileek azaltzen dutenez, bakoitzak etxetik eramane beharko du janaria.

Arratsaldeko 16:00ak aldera, mahai inguruia izango da Askatasuna plazan eta erraustegiaren inguruko iritzi trukaketa egingo da Zero Zaborren laguntzaz. Eta 19:00etatik aurrera kantujirak Usurbilgo kaleak alaituko ditu eta 21:00etan, bertso afaria izango da Asier Azpizko eta Unai Gaztelumendi bertolarien. Eguna bukatzeko, 00:00etan, Urrezko Muxkerrak, Mendeku Itxua eta Itzartu taldeen kontzertuak antolatu dituzte, Askatasuna plazan. Honela, Itaya taldeak eta Lasarte-Oriako gazteek herritar oro gonbidatu nahi dute biharko Erraustegiaren Aurkako Egunean parte hartzera.

LEHIAKETA

Literatura lehiaketako irabazleen izenak bihar jakingo dira

2011 urteko Lasarte-Oriako XXV. Literatura Lehiaketako eta haur eta gazteen XXIV. Literatura lehiaketako sari banaketa bihar, azaroaren 26an, eguerdian egingo da Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi-aretoan.

Azpimarragarria da, herri honetako lehiaketak duen garrantzia izan ere, Estatu osoko lanak iritsi dira helduen lehiaketan parte hartzeko. Haurren txapelketaren kasuan, herriko 500 bat haurren lanak aurkeztu dira aurtengoan. Horietatik euskaraz idatzitakoak ia 233 izan dira eta gaztelaniaz, aldiz, 185.

Epaimahaia zaila izan du aurten ere erabakia hartzeko. Hala ere, ados jarri eta bihar jakingo da, nortzuk diren aurtengo sarituak. •

OHARRA

Igerilekua itxita bihar arratsaldean

Igeriketa txapelketa dela eta, Udala igerilekua bihar, azaroaren 26an, arratsaldeko 16:00tik 19:30etara itxita egingo da erabiltzaileentzat. Udala kirol instalazioko abonatuak Andoingo, 943 300 147, eta Usurbilgo, 943 373 498, igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute. •



Goiatz Irazabal eta Lierni Arozena/ Kantu txapelketako finalistak

“Finalera iristea nahikoa izan da”

Gipuzkoak Kantu txapelketako finalean lehiatuko dira, igandean, Antzoki Zaharrean

Lierni Arozena lasarteoriatarra eta Goiatz Irazabal añorgarra berriro ere, Gipuzkoako Kantu txapelketan lehiatu dira. Iazko esperientziari gustua hartu eta urriaren 15ean Lezon izan zen kanporaketan parte hartu zuten. Hauekin batera, Andrea Gonzalez Udal Musika Eskolako ikaslea ere egon zen kanporaketan. Baina Lierni eta Goiatzek ez bezala, ez zuen finalerako txartela lortu. Donostiako Antzoki Zaharrean, igandean 18:00etatik aurrera, egingo den finalean izango dira bakarka eta bikoteka abesten.

Nerea EIZAGIRRE

Nola joan zen Lezoko kanporaketa?

Goiatz.- Lekua pentsatzen genuena baina txikiagoa zen, jendeak zutik egon behar izan zuen. Oso gustura egon ginen. **Lierni.-** Familia artekoa izan zen ondo pasa genuen.

Zein abesti eskaini zenituzten?

G.- Nik bakarka Ken Zazpiren “Zapalduen olerkia” eskaini nuen eta “Hesi hutsak” Mendeku Itxuarena. Hor jende gehiagoren laguntza izan nuen, gitarran Jon Bazterra eta Jabi Zuñiga, baxuan Aitor Lasoasa eta baterian Guillermo Carcedo.

L.- Nik bikotekako abestia egin nuen soilik, “Itsasgora eta itsas behera” Goiatzekin eta Aitor Uriaren laguntzaz. **G.-** Gure irakasle ohia izandako Nerea Goikoetxeak egindakoa da.

Nola animatu zineten bigarren urtez parte hartzeraz?

L.- Aitor eta Nereak deitu ziguten eta entsaiatzeko geratu ginen. **G.-** Denbora gutxian izan da, hiru entsegu egin genituen sailkapenerako eta orain bi entsegu egingo ditugu finalekoa prestatzeko. **L.-** Ordutegiakin zaila daukagu elkartzeko. Bestalde, aspaldi ez ginen elkartzeko eta aitzakia modukoa izan da berriro elkarrekin egoteko eta gustura egon gara.

Eta finalera iristea ezustekoa izan zen?

G.- Nik uste nuen bikoteka pasako ginela eta bakarka ez nuela lortuko. Iruditu zitzaizkidan sonoritate oso ona izan zela eta asko desafinatu nuela. Josu Izagirre musika eskolako irakaslea joan zen bigarren sailkapenen saiora eta ostean, bidali zigun mezua banaka eta banaka finalean ginela.

L.- Gainera, Lezon ginela jakin genuen bertan hiru bikotek bakarrik parte hartuko genuela baina Bergaran pila zeudela. Goiatzek hori esatean, zer eginik ez genuela pentsatu nuen. Baina azkenean zorzea izan dugu. **G.-** Orain uste dugu bost bikote gaudela finalean.

Eta ez dituzue beste lehiakideen abestiak entzun?

G.- Ez, Lezotik bikoteetan bakarrik gara finalera iritsi garenak. Bakarkakoan, berriz, gehiago izan dira eta ongi kantatzen dute. Baina lehengo urtearekin alderatuta, maila baxuagoa zela iruditu zitzaizkidan.

Eta hori zergatik?

L.- Guztiak gazteagoak ginen. **G.-** Lorea Intxausti eta Musika eskolako irakasle ohia izan zen nagusia. **L.-** Eta esperientzia gutxi zuten. Lehenengo aldia zen gehienentzat. **G.-** Andrea Gonzalez musika



Lierni eta Goiatz esperientziak gozatzeraz doaz Antzoki Zaharreko finalean.

eskolako ikaslea ere bertan egon zen eta oso ongi egin zuen. Baina ez zen pasa.

Beraz, aldagetak nabaritu dituzue...

L.- Bai. aurrekoan bat baino gehiagok maila desberdinetan parte hartu zuten. Jende asko zegoen orain banaka, orain bikoteka edo taldean ateratzen zirenak. **G.-** Gure sailkapenean uste

dut ni izan nintzela bi alditan atera nintzen bakarra.

Eta orain finala prestatzeraz...

G.- Bai. Aurten, gainera, aurreko urtean ez bezala, epeai mahaiekoek aholkuak eman dizkigute finalean gauzak hobetzeko. Horrek asko laguntzen du, zein akats egin duzun jakin baitezakezu. Ni bakarkakoan pertsonalki saiatu naiz guztia hobetzen.

L.- Orain, abestiak gureak egin ten saiatzen ari gara. Ea lortzen dugun guztia borobil izaten, ahotsak ere bai.

Zein abesti eskainiko dituzue?

G.- Nik bakarrik “Zapalduen Olerkia”. Guillermo Carcedo eta Julen Bazterra izango ditut laguntzaile kutxa eta gitarrarekin. **L.-** Bikotekoan “Itsasgora eta itsas behera” eskainiko dugu.

Ez al du Antzoki Zaharrak errespetua ematen?

G.- Bai egia esan antzerki bat ikustea zoaz eta pentsatzen duzu ni hor gongo naiz. Baina gozatzeko momentua da. Antzokiko kalitatea eta sonorizazioa primerakoa da. Eta jende askok zu ikustea, aprobetxatu behar da %100era.

Eta zein asmorekin zoazte finalera?

L.- Finalera iristea nahikoa izan da guretzat. Ondo pasatzeraz goaz. Hiru minutu horietan gozatzeraz goaz. **G.-** Azkenean beste denbora pasa bat bezala da. Gaur arratsaldean kantu txapelketa duzu, joan zara, entsegu egin duzu, zerbait hartzen duzu saioa hasi baino lehen... **L.-** Eta oso giro polita egoten da. **G.-** Nork irabazten duen berdin dio. **L.-** Ez dago lehiakortasun handirik. Denok gara lehiakide... **G.-** Denen nahia da hoberen egitea eta irabaztea baina...ez da helburu nagusia. **L.-** Gurea behintzat ez. **G.-** Aurten gainera Euskal herriko kantu txapelketara nor joango den aukeratuko da. Nire ustez, aukeratua izatea irabaztea baino gehiago da. Azkenean, bestea aukera bat duzu abestia erakusteko.

Jende animatuko al zenukete finalera hurbiltzeko?

G.- Lezoko sailkapenera gure familietako kideak gerturatu ziren. Jende asko zegoen bertan. Ilara luzea sortu zen. **L.-** Familiaz gain, lagun batzuk ere animatu ziren. **G.-** Baina finalekoa agian garesti da lagunei esateko. Sarrerek 8 euro balio dute. Eta gazte batentzako dirua da. **L.-** Eta barren-kezkak sortzen dizkizu jendeari esateak. •

Paul Eizmendi eta Eider Manso Euskal Herriko trikitilari gazteen finalean

Amalur trikitixa eskolako Paul Eizmendi trikitilari donostiarra eta herriko Eider Manso pandero jolea, igandean, azaroaren 27an, Zalbi-darreko Olazar pilotalekuan Euskal Herriko XX. trikitilari gazteen txapelketako finalean parte hartuko dute, 17:30etatik aurrera.

Bi kanporaketa izan dira Azkoitia eta Agurainen. Jon Lasaren eskolako gazteak bigarrenean izan ziren, beste bost bikoterekin batera. Bertan behartutako doinuak ziren Bizkaiko Trikitixa, Porrusalda, Fandangoa eta Arin-arina jo zituzten.



Paul eta Eider Aguraingo kanporaketako momentu batean. EIZMENDI FAMILIA

Gazteek kanporaketako laugarren postua eta finalerako txartela eskuratu zuten.

Finalean beste zazpi bikote izango dituzte aurrean. •



Kalitate turistikoaren 'Q'á

Euskadin honezkeroko 273 establezimenduk jaso du turismo arloko enpresen zerbitzua zertifikatzen duen Kalitate Turistikoaren Q ziurtagiria. Jardunbide egokirako programan, Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 494 establezimendu daude. Bereizkuntzak, formakuntza eta hobekuntzarako konpromisoa, establezimenduen kudeaketan dedikazioa eta zorrotasuna errekonozitzen ditu, kalitatearen hobekuntzarako planen bitartez. Helburu nagusia etengabeko hobekuntza da, bezeroaren zerbitzura.

Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?
Kalitate sistema bat erabiliz lan eginda, gure eguneroko lana eta hau egiteko modua hobetuko zela argi genuen. Ziur geunden horretaz.

Zein abantaila ekarri dizkizue Q ziurtagiria edukitzeak?
Nolabait esateko, Q ziurtagiriarekin gure lana sistematizatu da.

Lan egiteko prozedura eta modu jakin batzuk ezarri ditugu jatetxean eta azken batean gure lana txukunago egiten laguntzen digute.

Gauzak egin behar diren bezala egiten ditugu, bere momentuan egiten genuen bezala.

Ezarpeneren ondorioz nolako hobekuntzak izan dituzue, barne funtzionamenduari begira? Eta kudeaketa gaietan? Eta azpiegitura kontuetan?

Hobekuntzak burutu nahi izan ditugu garbiketan, sukaldatzeko garaian, erosketak egiteko edo gure hornitzaileak kontrolatzeko garaian, baita gure bezeroei informazioa helarazteko garaian ere.

Orain aipatutako prozedimendu horiek ditugu finkatuta gure lana egiteko eta sistema horrek asko hobetu du batez ere jatetxeko langileon barne funtzionamendua.

Bestetik kudeaketa gaietan ere lagundu digu. Besteak beste industria edo osasun arlotan bete beharreko arauak hobeto ezagutzera eraman gaitu ziurtagiriak eta baita hauek behar bezala betetzen lagundu ere.



Aitziber Martiarena eta Juan Luis Eizmendi Goiegiko arduradunak jatetxearen sarreran gainen Q-a dutela.

Eusko Jaurlaritzako Turismoaren "Basquetour" Euskal Agentziarekin batera, eta Euskalitekin elkarlanean, enpresarien esku jarri ditu hainbat baliabide eta beharrezko den laguntza lehiakortasunean irabazteko, honako programa hauen bitartez:

- **Jarduera onak**
Kalitatearekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa, turismo sektoreko profesionalen zuzenduta.
- **Kalitate Turistikoaren Q programa**
Kalitate kudeaketa sistemaren ziurtagiria. Bezeroen satisfakzioa aurreikuspenak beteko dituzten bermea.
- **EFQM bikaintasunaren eredia**
Kalitatearekiko bikaintasuna antolatzaileen eskura uzten duen programa.

JAR EZAZU KALITATE TURISTIKOAREN Q-a ZURE MERKATALGUNEAN
94 607 75 86 94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net / www.euskalit.net

Zeintzuk dira bezeroaren asebetetzean zuzenean eragina izan duten hobekuntzak?
Uste dugu gure bezeroek alde nabarmenik ez zutela somatuko. Hala ere, aurretik azaldu-tako puntu guzti horien hobekuntzak, bezeroari eskaintzen diogun arretan eta zerbitzuan eragina izango zuelakoan nago.

Bestalde, Kalitatearen Q ziurtagiria dela eta, atsegintasan inkestak egiten hasi gara jatetxean eta horietan bezeroek proposatutako gomendio zein proposamenen arabera, zenbait gauza aldatu ditugu.
Kasu honetan, inkesta hauek egitea oso aberasgarria gertatu zaigu zerbitzua hobetzeko.

Zer esango zenieke turismo arloko profesionali Kalitate Turistikoaren Q-aren ezarpenerako animatu daitezten?
Nire ustez bezeroek gero eta argiago dute kalitate erosi nahi dutela. Beraien diruaren truke dagoeneko edozerk ez du balio. Jatetxean esaterako gaur ondo eta bihar gaizki emateak, berehala uxatzen ditu bezeroak. Bezero horiek ez dira zuregana berriro bueltatuko eta hori ostalarik oso kon-tutan izan behar du. Bezeroak ondo zaindu behar dira beti.
Kalitate Turistikoaren Q-a edukitzeak ez dio inori gauza goxoagoak sukaldatzen erakutsiko, baina bezeroari, erosten duen produktua kalitatezkoa dela ziurtatzen dio kontsumitu aurretik.

Beste enpresari batzuei kalitate sistema ziurtagiriarekin lan egiteko gomendatuko zenieke?
Bai zalantzarik gabe. Hasiera batean lan handia badirudi ere, gauzak hobeto egiten laguntzen du eta bezeroek gero eta gehiago estimatzen dute, edozein arlotan, kalitate ziurtagiri bat duen produktua. Zerbitzu ona jaso eta produktu bikainak jatearen konfidantza behar dute egungo bezeroek.

Kalitate Turistikoaren Q-a prozesuak zure jatetxearen kokatze lehiakorrago ahalbidetzen du?
Kalitate gehiagorekin lan egiteak lehiakorrago egiten gaituela uste dugu, bai. Beste jatetxeengandik bereizten gaituen zerbitzu daukagu, Kalitate Turistikoaren Q-a.

Kalitate Turistikoaren Q-aren kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako gaitasunen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke garrantzitsuen edo erabilgarrien modura?
Urtero gure jardunaren azterketa bat egin eta hurrengo urterako helburu batzuk ezartzera behartzen gaitu Kalitatearen Q sistemak. Seguraski hori izan da lortu dugun gaitasun garrantzitsuenetako bat, aurreikuspen horrekin lan egiten jakitea.

Kalitate Turistikoaren Q-aren Kalitatearen kultura zure jatetxean bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?
Kalitatearen Q-a ezartzeko prozesua hasi aurretik ere, beti bultzatu izan dugu kalitatearen kultura gure jatetxearen barruan. Alde horretatik aipatu bezala ez da salto handia izan. Beti izan dugulako kalitate gure jatetxearen ikur eta helburu.

Beste alde batetik azpimarratzekoa da Q-a lortu ahal izateko lantaldeak hasieratik erakutsi duen inplikazio handia, izan ere, beraien elkarlanik gabe ezinezkoa izango zen hau martxan jartzea.
Aldaketa nabarmenenak beraz langileen artean burutu-takoak izan dira agian. Besteak beste, ikastaroak egin ditugu, erabili beharreko dokumentuak denon artean sortu eta aldatu izan ditugu. Ardurak denon artean banatzen ditugu orain. •



turismoaren euskal agentzia
agencia vasca de turismo



DIPUTATUEN KONGRESUA BERRITZEKO HAUSTESKUNDEETAKO EMAITZAK LASARTE-ORIAN

| | 2011ko azaroak 20 | 2008ko martxoak 3 | SASOETA | KULTUR ETXEA 1 | UDALETXEA | ZUMABURU ikastetxea | LIBURUTEGI ZAHARRA | UDAL PABLOIA | BASAUNDI | KULTUR ETXEA 2 | GARAIOETXEA |
|----------------|-------------------|-------------------|---------|----------------|-----------|---------------------|--------------------|--------------|----------|----------------|-------------|
| Hautesleak | 14.148 | 14.391 | 3.272 | 1.673 | 1.222 | 1.898 | 1.762 | 787 | 1.551 | 883 | 1.100 |
| Baliogabeak | 76 | 70 | 20 | 4 | 4 | 7 | 11 | 7 | 4 | 8 | 11 |
| Zuriak | 119 | 202 | 24 | 20 | 5 | 11 | 21 | 3 | 19 | 4 | 12 |
| Botuemaileak | 9.885 | 9.292 | 2.296 | 1.187 | 801 | 1.395 | 1.231 | 514 | 1.061 | 595 | 805 |
| PSE-EE | 3.309 | 4.947 | 844 | 366 | 189 | 608 | 328 | 170 | 351 | 181 | 272 |
| Amaiur | 2.446 | | 534 | 321 | 287 | 186 | 419 | 125 | 274 | 161 | 139 |
| PP | 1.653 | 1.444 | 405 | 195 | 82 | 305 | 154 | 88 | 161 | 101 | 162 |
| EAJ-PNV | 1.424 | 1.264 | 290 | 208 | 165 | 165 | 212 | 64 | 128 | 76 | 116 |
| IU-EzkerAnitza | 399 | | 79 | 32 | 34 | 48 | 44 | 34 | 59 | 26 | 43 |
| UPyD | 208 | 65 | 47 | 18 | 14 | 28 | 23 | 9 | 26 | 12 | 31 |
| Equo | 113 | | 19 | 9 | 5 | 16 | 11 | 10 | 22 | 9 | 12 |
| PACMA | 78 | 60 | 23 | 9 | 9 | 9 | 4 | 2 | 10 | 7 | 5 |
| PUM+J | 43 | 29 | 10 | 3 | 5 | 5 | 2 | 1 | 6 | 10 | 1 |
| UCE | 16 | | 1 | 2 | 2 | 7 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 |

Landaberriko jantokiarentzat irtenbidea nahi du PSE-EEK

Jesus Zaballosek prentsaurrean jakitera eman zuenez alkate izan zen garaian pausak eman ziren Eusko Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin Landaberriko jantokiaren inguruan. Zaballosen nahia eskola bakoitzean jantokia izatea zela azpimarratu zuen baina horretarako, "bidea egin eta delegazioak iaz planteatutako puntuak onartuta egon beharko lirateke".

Zaballosek esan zuenez Hezkuntza sailak honako baldintzekin hartuko omen zuen jantokiaren zerbitzua: 1-Udaletxeak zerbitzua eskaintzen den lokala utziko lioke Hezkuntza sailari. 2-Hezkuntzak bere gain hartuko litzuzke zerbitzuaren koste guztiak. 3-Landaberri eskolak kudeatu beharko litzuzke jantokiko bonuak, ez kultur etxean orain bezala. Lan hau egiteko pertsona bat aurreikusiko litzateke. 4-Bonoen prezioa beste jantokiekiko parekatuko litzateke. Orain ordaintzen dena baino nabarmen merketuko zen zerbitzua. 5-Ikaskoleen desplazamendua, eskolatik jantokira autobusez egitea ziurtatuko luke. 6-Jantokiko begirale kopurua igokoa litzateke. 7-Jantokiak kudeatzeko eskumena duen Auzo Lagun enpresak beregain hartuko litzuzke jantokiko langileak lanean jarrai dezaten.

Baldintzak alkate ohiak eskolako gurasoekin egindako bilera batean azaldu zituzela adierazi zuen eta bere aldeetik, gurasoek hauekin desadostasunean egoteko euren arazoak eta kezkek jakitera eman zituztela.

Jantokia eskolan bertan

Gauzak horrela, ikasturtea berdin hasi da eta Jesus Zaballosentzat baldintzak onartu izan balira, dagoeneko horien pean egongo lirateke ikasleak. "Bitartean udal gobernua eskolan bertan jantokia eraikitzeke presioa egin beharko luke". Irtenbidea eskatzen dute gurasoek, eskolan bertan nahi dute jantokia eta ikasle gehiago hartzeko lekuarekin. Bere garaian Hezkuntza sailak ez zuen Garaioetxean eta Landaberri jantokiak egiteko konpromezua hartu eta hori da gurasoen nahia.

Udal gobernuko ordezkariak bilera izan zuten Gasteizen gaiaren inguruan eta ez zekien Zaballosek zein bidetan diren negoziazioak "bilera parte hartzeko proposamena egin nion Boris Nogalesi eta beharrezkoa ez zela erantzun zidan. Nire asmoa lankidetzaren, aurretik emandako pausoak ondo ezagutzen ditudalako." •

PSE eta Amaiur bozkatuenak

- Herriko PSEkoak pozik azaldu dira botoak jaitsi arren lehen indarra delako
- 1.638 boto galdu ditu ■ Amaiur indartsu hasi da herrian 2.446 boto lortuz

Lasarte-Orian PSE-EEK jaso zituen igandean Madrilgo Kongresua berritzea hauteskundeetan boto gehien 3.309 baina 2008an baino 1.638 boto gutxiago.

2008ko hauteskundeetan ez zen ezker abertzalea aurkeztu eta Amaiurrek estrainaldi indartsua izan zuen herrian, 2.446 boto eskuratu baitzituen, maiatzaren 22ko hauteskundeetan Bilduk jaso zituen 2.168 haiek baino ia 300 boto gehiagorekin. Honek bigarren indar bezala kokatzen du Amaiur Lasarte-Orian, Gipuzkoako udalerrie-

tan koalizioak izandako emaitzen ildotik.

PP eta EAJk gora

PPk eta EAJk ere aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago eskuratu zituzten igandean. PPK 1.643 boto lortu zituen, 2008an 1.444 eta udal hauteskundeetan 785 boto jasota. EAJk berriz, 1.424 boto jaso zituen, 2008an 1.264 eta maiatzeko udal hauteskundeetan 1.091 lortuta.

Beste alderdien artean, Ezker Anitza 399 boto jaso zituen, UPyD-k 208 eta lehen aldiz aurkezten zen Equo-k

113. Hauteskundeetan parte hartzea Lasarte-Orian ere igo egin zen eta %30,20ko abstentzioarekin bost puntutan hobetu zen 2008koa, %35,47 izan zena.

PSE-EE lehena

Lasarte-Oriako alderdi sozialistak publiko egindako ohar baten bitartez, herritarrengandik jasotako babes eskertu nahi izan zuen. Jesus Zaballos alkate ohiaren hitzetan "hauteskundeetan argi geratu da zein den herritarren nahia eta hau dela eta, gure herriaren alde gogoz lan egiten jarraitu-

ko dugu". Gainera gogoratu nahi izan zuten Lasarte-Orian jaso duela alderdi sozialistak "Euskadiko boto portzentajetik altuena". Igandeko hauteskunde eguna erabateko lasaitasunean eta istilurik gabe bitztea garrantzitsutzat jo zuten PSE-EEtik.

Osotasunean hartuta, azaroaren 20ko hauteskundeek honako emaitzak utzi zituzten: Hego Euskal Herriko Amaiurrek Kongresuan zazpi ordezkari izango ditu, bost PSOEk, PNVk eta PP-UPNk. Geroa Baiko Uxue Barcos-ek ere izango du Madrilan ordezkari. •

'ETA ez ETA no' leloa kendu zuten atzo Udaletxeko balkoitik

ETA EZ, ETA NO" leloa zuten pankarta atzo eguerdian kendu zuten Udaletxeko balkoitik. Aralarreko ordezkariak eskatu zuen azaroko udal batzarrean eta Udalak kentzeko erabakia hartu duela jakinarazi zuen atzo bertan Pablo Barrio alkateak. PSEk aldiz erabakiarekin ez dagoela konforme adierazi zuen prentsa ohar baten bidez.

Barrio alkatearen ustez, "une historikoa bizi dugu Euskal Herrian. ETAk borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin, ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da". Konfron-

tazio armatua itxi eta bake bidea hartzeko aukera zabaldu da bere ustez, eta "normalizazio politikora bidean eman beharreko" urratsetako bat da Udaletxean zintzilikatuta zen pankarta kentzeko erabakia.

Lasarte-Oriako PSE-EEK erabakia errespetatu bai baina ez duela bat egiten adierazi zuen atzo. Euren ustez, ETAREN iragarpena onuragarria bada ere, "bakearen alde urrats gehiago eman behar ditu oraindik" eta bestalde, kexa adierazi dute pankarta kentzeko biktimak omentzeko baino presa handiagoa izan dutelako udal ordezkariak. •



Udalak pankarta kentzea erabaki eta ostegun eguerdian jaso zuten udal langileek.

Egunero

Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroan zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN.



Ostirala, 25

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO ANTZERKI TALDEAK "PATIO DE VECINAS" antzerki lana eskainiko du, emakumearen indarke-riaren aurkako eguna dela eta. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 20:00etan, GAZTELANIAZ. **Sarrera, 2 euro**

Larunbata, 26

Sari banaketa

2011. urteko Lasarte-Oriako heldu eta gazteen Literatura Lehiaketako Sari banaketa egingo da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEKO HITZALDI ARETOAN, 12:00etan.

Igandea, 27

Zinea

HAURRENTZAKO ZINEA atalean



20 urte herrian lanean

Jalgune elkarteak bere 20. urteurrena ospatzen ari da aurt. Horretarako hainbat ekintza antolatu ditu urtean zehar. Azken hilabetera iritsi gara eta astean zehar erakustaldia izan du Manuel Lekuonan. Bihar, aldis, 20 URTE, HAMAIIKA BIRTUTE jaialdia antolatu du.

LARUNBATA 26

18:00ETAN

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN

KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, 18:00etan, EUSKARAZ.

Hitzaldia

LASARTE-ORIA BIZIRIK eta EKOLOGISTAK MARTXAN elkarrean eskutik, ITZULI MITZULI ontzi hondakinen gestiorako proiektua aurkeztuko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 19:00etan

Asteazkena, 30

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "NIRE AITA ETXE BATEAN BIZI DA ETA NIRE AMA BESTE BATEAN" JOSUNE MARTIRENAREN eskutik. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan.

Diaporama

MAIDER ETA ANE GALARDI eta OIHAN ETA IZAR AGIRRETXE gazteek apirillean ETIOPIARA egindako bidaiaren berri emango dute. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, 21:30ean.

Osteguna, 01

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, BERTSOLARI dokumental eskainiko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 21:30ean. EUSKARAZ. **Sarrera, 4,30 euro.**

Oharrak

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, gaur, Lasarte-Oriako Exteratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, Odol emailen ekar-teak odol ateratzeak egingo ditu Osasun Zentroan azaroaren 28an, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara.

Anima zaitzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Alboka txiki entseguak

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasi ditu. 7 eta 12 urte arteko haur eta gazte-oei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea.

Entsegua Zumaburuko eliza azpian dagoen lekoean egiten da, asteleheneroan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzte!

Euskal Dantza Taldea

Landaberri BHLn entsaiatzen duen Euskal Dantza taldea, Felix Telleriak zuzendutakoa, lanean da.

Entseguak astearte eta ostegunetan dira 20:00etatik 21:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 26

10:00etan, Ostadar-Zarauz (Infantil Txikiak, Kopa) Michelinen.
10:45ean, Euskalduna-Texas Lasartearra (I. Kadetea) Ubitarte, Andoainen.
11:30ean, Ostadar-Arõrga (Emakumezkoen seniorra) Michelinen.
13:00etan, Ostadar-Urnieta (I. Infantil) Michelinen.
13:30ean, Amara Berri-Ostadar (I. Erregionala) Martutene, Donostian.
15:30ean, Texas Lasartearra-Segura (I. Erregionala) Michelinen.
15:30ean, Sporting de Herrera-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Herrera, Donostian.
15:30ean, Billabona-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila) Arratzain, Billabonan.
15:30ean, Touring-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Fanderia, Erreterian.
17:15ean, Ostadar-Touring (Erregional Goren) Michelinen.

Igandea 27

10:00etan, Ostadar-Usurbil

(I. Kadetea) Michelinen.
11:30ean, Ostadar-Real Union (Jubenil Ohorezko Maila) Michelinen.
11:30ean, Ostadar-Beasain (Alebinak) Argixao, Zumarraga.

■ ARETO FUTBOLA ■

Ostirala 25

HERRIKO TXAPELKETA
19:30an, Balerdi Harategia-El Punto
20:30ean, ISU Lei.- Oriakrist.

Larunbata 26

HERRIKO TXAPELKETA
Areto-futboleko pista
09:10ean, Viña del Mar-El Bar de Mau
10:10ean, Ayete-Dakara
11:10ean, Izarra-Illum
12:10ean, Indaux-Trumoi
13:10ean, Buenetxea-Tiburones Rojos

Igandea 27

10:30ean, Buruntza K.T Aldaz H.K.-Gora K.T. (Nazional B maila) Kiroletdegian.
12:00etan, Sasikoa-ISU Leioak (Euskal Liga) Landako kiroldedia, Durango.

HERRIKO TXAPELKETA
10:00etan, Izkiñ-Txindokio
11:00etan, Ilargi-Naiban

■ PILOTA ■

Ostirala 25

19:00etan, Aurrera Saiaz-Intza (Eskuz binaka, I. mailako kadeteak) Ernio, Bidegoian.
20:00etan, Intza-Igeldo (Eskuz binaka, III. mailako seniorra) Ibaeta, Donostian.

Larunbata 26

16:00etan, Intza-Lagunak (Eskuz binaka, I. mailako seniorra) Michelingo pilotalekuan.
18:00etan, Gazteleku 2-Intza I (Eskuz binaka, 2. urteko infantil) Andoaingo ikastola.

■ ATLETISMO ■

Larunbata 26

16:30ean, herriko hainbat korrikalarik Azkoitiko VII. Herri lasterketan parte hartuko dute.

Igandea 27

09:00etan, herriko hainbat korrikalarik Donostiako DKV Maratoiean parte hartuko dute.
09:10ean, herriko hainbat korrikalarik Donostiako Maratoi laurdenean, 10km parte hartuko dute.

■ IGERIKETA ■

Larunbata 26

10:30ean eta 17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburuk Euskal Herriko Selektzioen arteko txapelketan parte hartuko du Gipuzkoako selektzioarekin, Mendizorrotxa, Gasteizen.
16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gaztekoek Kirol Zehaztasuneko Ligako lehenengo jardunaldia izango dute, Lasarte-Oriako Udal igerilekuan.

■ TXIRRINDULARITZA ■

Larunbata 26

16:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteek Pistako Gipuzkoako kopako 3. jardunaldian parte hartuko

dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

■ JUDOIA ■

Larunbata 26

15:30etatik aurrera, gerriko beltza duten LOKEko judoek Danak lortzeko azterketa praktikoa egingo dute, Usabal kiroldegian, Tolosan.

Igandea 27

10:00etatik aurrera, LOKEko infantil mailako judoek Nazioarteko XXXVIII San Andres txapelketan parte hartuko dute, Ipuruia kiroldedia, Eibarren.

■ ERRUGBIA ■

Larunbata 26

12:00etan, Ordizia-Beltzak Ostadar Jalai (Infantil federatuak) Ordizian.

Igandea 27

12:00etatik aurrera, Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako infantil ez federatuek topaketa dute, Anoetako Mini estadioan, Donostian.

**2011/12
GABONAK**
ERREGE EDO OLENTZEROTARAKO
OPARITU ERRETRATU BAT!
ARGAZKI SESIOAK **65 EUROTAN**

Ezti photo

Golf Plaza 4, Atsobakar. Tlf: 943 900 565 www.eztiphoto.com

Jalgune

Azaroaren 26an, 18:30ean
Manuel Iekuona kultur etxean

Azaroaren 29an 17:30ean
PALA SAIOA
Lcidi barreneneko frontoian

Azaroaren 30ean, 18:00etan
IPUIN KONTALARIA
Anbulategi berriko 2. solairuan

Abenduaren 1ean, 18:00etan
BIDEO EMANALDIA
Anbulategi berriko 2. solairuan

Azaroaren 28an 18:00etan
BARRETERAPIA
Anbulategi berriko 2. solairuan

Abenduaren 3an
DJ-a eta sorpresak!
Villa Mirentxun 17:00etatik aurrera 20:00ak arte

20 URTE BERTUTE

DATORREN ASTEAN...

ANIMA ZAITEZ!!